



**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN
PROTOKOLOA, INDARKERIA
MATXISTEAREN AURREAN ZELAN
JOKATU ETA JENDAURREAN
ERAKUNDE MODUAN ZELAKO
ERANTZUNA EMON ZEHAZTEN
DAUENA**

**PROTOCOLO DE ACTUACIÓN Y
RESPUESTA PÚBLICA
INSTITUCIONAL DE LAS JUNTAS
GENERALES DE BIZKAIA ANTE LA
VIOLENCIA MACHISTA**

1. SARREREA

Emakumeen eta gizonen bardintasunaren eta sexu-diskriminaziorik ezaren printzipioa printzipio juridiko unibertsala da. Erakunde publikoek komunikazio instituzionala erabilten dabe balioak zabaltzeko eta printzipio unibertsal hori gauzatzeko.

Indarkera matxistea/sexistea giza eskubideen urraketea da eta sistema patriarkalaren adierazpenik larriena da. Ezin dira hartu kasu banaka batzuk bakarrik balira lez; gure ikuspuntutik, indarkeria hori estrukturala da, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere hartu-emonak ez aldatzeko ezinbesteko bitartekoa.

Hori dala-eta, Bizkaiko Batzar Nagusiek aditzera emon gura dabe konpromiso sendoa hartu dabela bardintasuna lortzeko eta emakumezkoen aurka bizitzaren esparru guztietan erabilten dan indarkeria matxistearen kontra burrukatzeko. Aditzera emon gura dabe, era berean, indarkeria sexistearen aurkako burrukan hartutako konpromisoa irmoa dala, kontuan harturik indarkeria sexistea batez be emakumezkoak kontrolatzeko eta menderatzeko erabilten dala bizitzaren esparru guztietan emakume izate hutsagaitik. Konpromiso hori bardin hartu dabe “sexua - genero-identidadea - genero-adierazpena - sexu-orientazio menderatzailea” sistemearen aginduak urratzen dituen pertsonen —esaterako

1. INTRODUCCIÓN

El principio de igualdad de mujeres y hombres y la no discriminación por razón de sexo es un principio jurídico universal. La comunicación institucional es la voz de la que disponen las instituciones públicas para difundir los valores y lograr así este principio universal.

La violencia machista/sexista constituye una violación de los derechos humanos y es la expresión más grave del sistema patriarcal. No se puede entender como una situación aislada ya que la definimos como una violencia estructural indispensable para mantener las relaciones de poder entre hombre y mujeres.

Por ello, Las Juntas Generales de Bizkaia quieren manifestar su compromiso por lograr esta igualdad y su compromiso en la lucha contra la violencia machista que se ejerce contra las mujeres en todos los ámbitos de la vida. Quieren expresar un claro compromiso en la lucha contra la violencia sexista que como ejercicio de control y dominio se ejerce principalmente contra las mujeres en todos los ámbitos de la vida, por el hecho de serlo y la violencia que enfrentan las personas que transgreden los mandatos del sistema sexo - identidad de género – expresión de género – orientación sexual dominante, como son las personas LGTBIQ+.



LGTBIQ+ pertsonen— alde, jasaten indarkeriaren aurkako burrukan.	
Protokolo hau landurik, Bizkaiko Batzar Nagusiek erakutsi gura dabe emakumezkoen aurkako indarkerien kontra eta berdintasunaren alde daben jarrera ukazina dala eta euren apustua dala protokolo hau Bizkaiko Lurralde Historikoan jazo leitekezan eraso matxistei erantzun instituzionala emoteko tresnea izatea.	Las Juntas Generales de Bizkaia con la elaboración de este protocolo quiere mostrar su innegable posicionamiento contra las violencias hacia las mujeres y en favor de la igualdad y su apuesta por ser un instrumento de respuesta institucional a las agresiones machistas que puedan ocurrir en el Territorio Histórico de Bizkaia.
Beste alde batetik, eragile sozial eta instituzionalak indarkeria matxistearen aurkako burrukan inplikatzea gura dabe, komunikazio instituzionala ekimen isolatu gisa ikusi ez daiten. Bizkaiko erakunde publiko eta gizarte-eragile guztien arteko lankidetzari esker, mezua ozenagoa, eskala handiagokoa eta askotarikoagoa izango da, parte-hartzaileak motibatu egiten dira eta bardintasunera, emakumeakanako errespetura eta eraso matxisten aurkako burrukara zuzendutako patroiz soziokulturalak sustatzen dira.	Por otra parte, se quiere implicar a los agentes sociales e institucionales en la lucha contra la violencia machista, para que la comunicación institucional no se vea como una iniciativa aislada. La cooperación entre todas las instituciones públicas y agentes sociales de Bizkaia intensifica el mensaje a una escala mayor y más diversa, motiva a sus participantes y promueve patrones socioculturales generadores de igualdad, de respeto a las mujeres y de lucha contra las agresiones machistas.
Konpromiso hau dala medio, Bizkaiko Batzar Nagusiek indarkeria matxista mota guztiak gaitzesten ditue jendaurrean.	El rechazo público a todo tipo de violencia machista es el compromiso de Las Juntas Generales de Bizkaia.
2. HELBURUAK	2. OBJETIVOS
Zelan jokatu eta jendaurrean zelako erantzuna emon zehazten dauen protokolo honek helburu honeek ditu:	Estos son los objetivos de este Protocolo de actuación y de Respuesta Pública:
<ul style="list-style-type: none">Erakundeen erantzun integrala eta garbia egituratzea, eta bai erakundearen bai erakundea osotzen daben pertsonen jarrera sendo eta tinko proiektatzea.	<ul style="list-style-type: none">Articular la respuesta integral y nítida por parte de las instituciones, y proyectar de forma rotunda su posición y la de las personas que la integran.
<ul style="list-style-type: none">Indarkeriaren aurkako erantzun publikoa efizientzia handiagoz emotea eta era horretan erakundeen arteko koordinazioa optimizatzea ahalbidetzea.	<ul style="list-style-type: none">Ganar en eficiencia en la respuesta pública ante la violencia, posibilitando la optimización de la coordinación institucional.
<ul style="list-style-type: none">Gizarte-eragileen eta herritarren adierazpen-bidea sendotzea, emakumeen aurkako erasoek jendaurrean emon beharreko erantzunari jagokonez, eta horren osagarri beste ekinbide batzuk aurrera eroatea.	<ul style="list-style-type: none">Reforzar el cauce de expresión de agentes sociales y ciudadanía, en lo relativo a la respuesta pública en caso de agresiones contra las mujeres, complementando otras actuaciones.



<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko Batzar Nagusiek jendaurrean erakustea indarkeria sexista mota guztiak arbuatzen dituela, baita biktimei laguntzen deutesen pertsonak pairatzen dituen indarkeria mota guztiak be.	<ul style="list-style-type: none">• Mostrar públicamente el rechazo de las Juntas Generales de Bizkaia a toda forma de violencia sexista y a toda forma de violencia contra cualquier persona que ayude a la(s) víctima(s).
<ul style="list-style-type: none">• Sentsibilizazioaren aldeko lanean laguntzea, eta edozein esparrutan eta formatan erabilitako indarkeria sexistaren adierazpen guztien aurrean zero tolerantziaren kultura sendotzea.	<ul style="list-style-type: none">• Contribuir a la sensibilización y fortalecer la cultura de tolerancia cero ante cualquier manifestación de violencia sexista, en cualquier ámbito y en cualquiera de sus formas.
<ul style="list-style-type: none">• Emakumeen eskubideak eta askatasuna indartzen laguntzea, emakumeen segurtasuna bermatuz, horregaz bildurraren kulturarik sortu barik.	<ul style="list-style-type: none">• Contribuir a reforzar los derechos y la libertad de las mujeres, garantizando su seguridad, sin generar con ello cultura de miedo.
<ul style="list-style-type: none">• Indarkeria sexistaren tratamenduari jagokonez, biktimak errudun egingo ez dituan eta erantzukizuna erasotzaileei egotziko deutesen tratamendua bultzatzea hedabideetan.	<ul style="list-style-type: none">• Contribuir a un tratamiento de la violencia sexista en los medios de comunicación que no culpabilice a las mujeres y deposite la responsabilidad sobre los agresores.
<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko Lurralde Historikoaren identiedadea eta indarkeria sexistaren aurkako jarrera unibokoa sendotzea.	<ul style="list-style-type: none">• Reforzar la identidad del Territorio Histórico de Bizkaia y su unívoco posicionamiento en contra de la violencia machista.
3. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA	3. PROPUESTA TERMINOLÓGICA
Erakunde publikoek indarkeria sexisteari erantzuteko euren esku-hartze esparrua zabaldu daben neurrian, hainbat kontzeptu eta termino sortu eta egokitu dira. Kontzeptu horreen xedea indarkeria matxista mota guztiak agerira ateratzea da. Hara hemen administrazio publikoek darabilezan terminoak:	En la medida que las instituciones públicas han aumentado su marco de intervención para responder a la violencia sexista, se ha generado y adecuado diferentes conceptos y términos. Esos conceptos han tenido como objeto visibilizar los diferentes tipos de violencia machista. A continuación, recogemos los diferentes términos que se utilizan por las administraciones públicas:
INDARKERIA MATXISTEA	VIOLENCIA MACHISTA
Pertsona guztiak indarkeria matxistearen biktima izan leitezke, baldin euren gorputz eta identiedetatik aurre egiten badeutsee euren egitura biologikoari, ezarritako jokaera heterosexualari, onargarritzat jotzen dan estetika tradizionalari...; izan be, indarkeria matxistea kontrol-tresnea da, “sexua - genero-identitatea - genero-adierazpena - sexu-orientazioa” sistemearen eskemea errepikatuko dala ziurtatzeko erabilia.	Todas las personas que desde sus cuerpos e identidades desafían su estructura biológica, el comportamiento heterosexual impuesto, la estética tradicional considerada aceptable... son susceptibles de sufrir violencia machista como mecanismo de control para asegurar la reproducción del esquema sistema sexo - identidad de género – expresión de género – orientación sexual.



<p>Berau izango da, beraz, esparru-kontzeptua, eta hor sartzen dira modu tradizionalan ezarritako genero-eskema hausten dituen gorputzen ganean (intersexa, transgeneroa, transexualak, homosexualak, lesbikoak) eta sexua/generoa eskema tradizionala errepikatzeari uko egiten deusien pertsonen ganean espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten diran indarkeria mota guztiak, kontuan harturik halako pertsonen jasaten daben zuzeneko indarkeriaren askotariko adierazpenak haurtzaroan agertu eta euren bizitza osoan irauten dabela hainbat forma harturik.</p>	<p>Este será el concepto marco, en el que se incluyen todas las formas de violencia en todos los espacios físicos y simbólicos que se ejerzan sobre los cuerpos que rompen los esquemas de género tradicionalmente asignados: intersex, transgénero, transexuales, homosexuales, lésbicos, así como personas que se resisten a reproducir el esquema sexo/género tradicional, entendiéndose que las diversas expresiones de violencia directa que sufren estos cuerpos insumisos se manifiestan desde la infancia y se mantienen a lo largo de su vida adquiriendo distintas formas.</p>
<p>GENERO-INDARKERIA</p>	<p>VIOLENCIA DE GÉNERO</p>
<p>Bikotekideak edo bikotekide izanikoak edozein eratako indarkeria sexista darabilenean erabiliko da genero-indarkeria terminoa. <i>Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko</i> abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, definizio hau emon zan: “indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, indarkeria hori emakumeen ezkontide direnek edo izan direnek edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek darabiltenean, nahiz eta elkarbizitarik ez izan”.</p>	<p>Se utilizará violencia de género cuando la violencia sexista sea ejercida en cualquiera de sus formas por la pareja o expareja. Esta definición se recoge en la Ley Orgánica 1/2004, de 8 de diciembre, <i>de medidas de protección integral contra la violencia de género</i>: “todo acto de violencia física y psicológica, incluidas las agresiones a la libertad sexual, las amenazas, las coacciones o la privación arbitraria de la libertad que se ejerza por parte de los hombres contra las mujeres que hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aún sin convivencia”.</p>
<p>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SEXISTEA</p>	<p>VIOLENCIA SEXISTA CONTRA LAS MUJERES</p>
<p>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz emakumeen aurkako indarkeriatzat joko da, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badeutso edo ekarri ahal badeutso. Halakotzat joko dira, era berean, emakumea ekintza horreek egiteagaz mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan. Emakume izate hutsagaitik eta ordezkatzan dabenagaitik</p>	<p>La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres recoge que se considerará violencia contra las mujeres cualquier acto violento por razón del sexo que resulte, o pueda resultar, en daño físico, sexual o psicológico o en el sufrimiento de la mujer, incluyendo las amenazas de realizar tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad que se produzcan en la vida pública o privada. Nos referimos a todas las formas de violencia ejercida específicamente contra las mujeres por el mero hecho de serlo y por lo que representan.</p>



emakumeen aurka berariaz egiten diran indarkeria mota guztiei buruz gagoz berbetan.	
SEXU-INDARKERIA	VIOLENCIA SEXUAL
Onartuak ez diran sexu-izaerako jokaera guztiak joten dira sexu-indarkeriatzat. Gaur egungo kontzeptu juridikoak integratze aldera, indarkeria sexualak hartzen dituan hiru forma honeek bereiziko dira:	Se refiere a comportamientos de carácter sexual no deseado. A fin de integrar los conceptos jurídicos actuales, se distinguirán tres formas que adquiere la violencia sexual:
Sexu-erasoak: indarkeria eta larderia erabiliz egiten diran erasoak eta indarkeria eta larderia erabili barik egiten diranak. Borondate- edo adimen-gaitasuna mugatuta eukiteagaitik baliozko ezagutzarik ez daukien emakumeei egindako abusuak be joten dira sexu-erasotzat.	Agresiones sexuales: aquellas que se producen mediando violencia e intimidación y aquellos que se realizan sin violencia o intimidación. Se incluyen los abusos cometidos sobre mujeres que no pueden prestar conocimiento válido por tener limitada su capacidad volitiva o intelectual.
Sexu-jazarpena: Sexu-izaerea daukan berbazko jokabidea, berba bako jokabidea edo jokabide fisikoa, emakume bategaz, berak gura ez dauela, eukitakoa, laneko, irakaskuntzako edo antzeko hartu-emonen esparruan egiten dana eta helburu edo ondoriotzat dauena bere duintasunari eraso egitea, edo bera kikiltzeko, beragaz areriotzeko, bera iraintzeko, laidoztatzeko edo mintzeko giroa sortzea.	Acoso sexual: comportamientos verbales, no verbales y físicos de índole sexual y no deseados, que se producen en el marco de una relación laboral, docente o similar con el propósito o el efecto de atentar contra la dignidad de la mujer y/o de crear un entorno intimidatorio hostil, degradante, humillante u ofensivo
Ganera, “ Sexu-izaerako indarkeria sexistea = sexu-erasoa + sexu-abusua + sexu-jazarpena” be badago: (Sexu-askatasunaren aurkako delituak, Zigor Kodea; 178-194 artikulua)	Además, existe la Violencia Sexista de índole sexual = agresión sexual + abuso sexual + acoso sexual (Delitos contra la libertad sexual, Código Penal; artículos 178-194)
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA SEXISTEA	VIOLENCIA SEXISTA INTRAFAMILIAR
Familiako kideek (aita, anaia, aitita, osabak, etab.) kontrola, eraso, arbuioa, bazterkeria eta abar jasanarazoten deusezanean neska, nerabe eta edozein adinetako emakumeei, horrela izendatuko doguz indarkeria mota horreek guztiok.	Utilizaremos esta denominación para referirnos a las diversas formas de control, agresión, rechazo, exclusión... que sufren las niñas/os, adolescentes y mujeres de todas las edades por parte de sus familiares (padre, hermano, abuelo, tíos, etc.).
INDARKERIA LGTBIQFOBIKOA	VIOLENCIA LGTBIQFÓBICA
LGTBIQfobiak pertsona guztiakan dauka eragina, eta haren jarduteko modua presinoa egitea da sexualitate- eta genero-aniztasuna mugatzeko. Indarkeria LGTBIQfobikoa diskriminazio horren	La LGTBIQfobia afecta a todas las personas y funciona presionando para limitar la pluralidad de sexualidades y géneros. La violencia LGTBIQfóbica es la expresión más grave de esta discriminación y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

adierazpenik larriena da eta LGTBIQ+ kolektiboaren barruan zein kanpoan gertatu leiteke.	puede darse tanto fuera como dentro del propio colectivo LGTBIQ+.
Gorroto-delituak: "(A) Zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-hausteak barne, zeinetan arau-haustearen biktimak, lokala edo xedea aukeratzen dan B zatian zehaztutako talderen bateko partaide, laguntzaile edo afiliatua izateagaitik edo haregazko loturea edo sinpatia izateagaitik, edo hala dala susmatzeagaitik;	Delito de odio: "(A) Cualquier acto de hostilidad o infracción penal, incluyendo infracciones contra las personas o las propiedades, donde la víctima, el local o el objetivo de la infracción se elija por su, real o percibida, conexión, simpatía, filiación, apoyo o pertenencia a un grupo como los definidos en la parte B;
(B) Taldea osatzen daberen pertsonen dituen ezaugarri komunetako bat izan behar dau taldeak oinarri, esate baterako euren arraza erreala edo pertzepzinozkoa, nazino- edo etnia-jatorria, hizkuntza, kolorea, erlijinoa, sexua, adina, dibertsitate intelektuala edo fisikoa, sexu-orientazioa edo antzeko beste faktore batzuk." (ESLA, 2003)	(B) Un grupo debe estar basado en una característica común de sus de las personas que lo componen, como su raza real o perceptiva, el origen nacional o étnico, el lenguaje, el color, la religión, el sexo, la edad, la diversidad intelectual o física, la orientación sexual u otro factor similar." (OSCE, 2003)
Kasu honetan, sexu-orientazioaren edo sexu-generoaren adierazpen edo identitatearen ondoriozko gorroto-delituak hartuko dira kontuan.	En este caso, se tendrán en cuenta los delitos de odio por orientación sexual y/o identidad o expresión sexo-genérica.
Transfobia: pertsona transkanako ezinikusia edo arbuioa. Egiturazko hainbat indarkeria mota dagoz, patologizazio medikotik hasi eta eraso fisikoaren edo isolamenduaren moldean agertu leitekean zuzeneko indarkeriaraino.	Transfobia: aversión y rechazo hacia las personas trans. De manera estructural hay diversas formas de violencia, desde la patologización médica hasta la violencia directa que se puede traducir en agresiones físicas o aislamiento.
Lesbofobia: hartu-emon afektiboak eta sexualak beste emakume batzuk daukiezan emakume kanako ezinikusia edo arbuioa. Lesbofobia modu ohikoenetarikoa bat halako bikoteak ikusezin egitea da, baina ez da modu bakarra, arau heterosexualaren urratze baten aurkako indarkeria matxista horrek bat egiten dauelako indarkeria sexistearen adierazpenakaz.	Lesbofobia: aversión y rechazo hacia las mujeres que se relacionan afectiva y sexualmente con otras mujeres. La invisibilización del sexo en estas parejas es una de las formas más frecuentes de lesbofobia, pero no la única ya que esta forma de violencia machista contra una transgresión de la norma heterosexual se integra con expresiones de la violencia sexista.
Homofobia: hartu-emon afektiboak eta sexualak beste gizon batzuk daukiezan gizon kanako ezinikusia edo arbuioa. Era horretako indarkeria matxistea bereziki oldarkorra izan ohi da beste gizon batzuen eskutik zuzenean agertzen danean; ganera, horrek badauka arbuio-karga sinbolikoa, heteronormatibidateari aurre egin eta maskulinitasun hegemonikoaren oinarriak zalantzan ipinten dituen gizonen aurka.	Homofobia: aversión y rechazo hacia los hombres que se relacionan afectiva y sexualmente con otros hombres. Esta forma de violencia machista suele ser particularmente agresiva en su manifestación directa por parte de otros hombres además de la carga simbólica de rechazo contra los hombres que desafían la heteronormatividad y cuestionan los fundamentos de la masculinidad hegemónica.
Bifobia: hartu-emon afektiboak eta sexualak genero bateko pertsonak baino gehiagok daukiezan pertson kanako ezinikusia edo arbuioa. Praktika	Bifobia: aversión y rechazo hacia las personas que se relacionan afectiva y sexualmente con personas de más de un género. La invisibilización y la



<p>horreek ikusezin egitea eta barregarri ixtea dira erabili ohi diran indarkeria nagusiak.</p>	<p>ridiculización de dichas prácticas son las principales violencias ejercidas.</p>
<p>Intersexfobia: sexu anbiguoagaz jaiotearen ondorioz sexu-binarismoa eta emakumeen nahiz gizonen gorputzek zelakoak izan behar daberen ezarten dauen ideia hegemonikoa zalantzan ipinten dituen pertsonakanako ezinikusia edo arbuioa. Indarkeria mota hau, batez be, mediku-patologizazioaren eta ikusezintasun sozialaren bidez gauzatzen da.</p>	<p>Intersexfobia: aversión y rechazo a personas que, al nacer con sexo ambiguo, ponen en cuestión el binarismo de sexos y la idea hegemónica sobre cómo deben ser los cuerpos de mujeres y hombres, no siendo fácil de categorizar como femenino o masculino.</p>
<p>LGTBIQfobia edo LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria, azken baten, maskulino eta femenino danaren arteko mugeri eusteko erabilten da (González Pérez, 2016); izan be, arauzko generoaren egiturazko hartu-emonak indartzen dituan sistemearen parte da. Ganera, sexualitateen eta generoen aniztasuna mugatzeko presinoa egiten dau. Indarkeria horren barruan sartzen dira jazarpena, arbuioa, abandonua, diskriminazioa, indarkeria sinbolikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria fisikoa, berbazko erasoak eta eraso fisikoak, begirada jakin-nahizkoak, mespretxuzkoak eta epai-emoileak..., emakumetzat edo gizontzat jotzen danaren ganeko aginduak ez beteteagaitik bakarrik.</p>	<p>Esta forma de violencia se da sobre todo a través de la patologización médica y la invisibilización social. En definitiva, la LGTBIQfobia o la violencia contra las personas LGTBIQ+ es usada para mantener las fronteras entre lo masculino y lo femenino (González Pérez, 2016), formando parte de un sistema que refuerza las relaciones estructurales del género normativo y presiona para limitar la pluralidad de sexualidades y géneros. Esta violencia incluye el acoso, rechazo, abandono, discriminación, violencia simbólica, psicológica, física, agresiones verbales y físicas, miradas inquisitivas, despectivas y cuestionadoras... por el mero hecho de no cumplir los mandatos de lo que se entiende por ser mujer u hombre.</p>
<p>GENERO BEREKOEN ARTEKO INDARKERIA</p>	<p>VIOLENCIA INTRAGÉNERO</p>
<p>Sexu/genero bereko pertsonen arteko hartu-emon afektibo eta sexualen barruan jazoten dan indarkeria da, hainbat modutan agertu leitekeana. Genero bereko pertsonen arteko indarkeria egiturazko beste elementu batetik justifikatu eta sustatzen da: homofobia eta LGTBIQfobia. Sexu bereko bikoteetan jazoten dan indarkeriak homofobian dauka oinarria; izan be, tratatu txarrak eragiten dituen pertsonen maila apalagokotzat jotzen dituen euren sexu bereko bikotekideak edo bikotekide ohiak genero-rolakaz zerikusia daukien errazoiakaitik (zein dan maskulinoagoa, zein femeninoagoa, zeinek hartzen dituan rol eta funtzio jakin batzuk bikotean...). Genero berekoen arteko indarkerian tratatu txarren biktima edo egile izateak zerikusia dauka botere desbardintasunagaz. Tratatu txarrak eragiten dituenek homofobia edo LGTBIQfobia be barneratzen dabe; horren ondorioz, euren buruaren aurkako gorroto</p>	<p>Este concepto se refiere a la violencia que en sus diferentes formas se produce en el seno de las relaciones afectivas y sexuales entre personas del mismo sexo/género. La violencia intragénero se justifica y promueve desde otro elemento estructural: la homofobia y la LGTBIQfobia. La violencia en parejas del mismo sexo se apoya en la homofobia porque las personas que maltratan consideran inferiores a sus parejas o exparejas del mismo sexo por cuestiones relacionadas con los roles de género (quién es más masculino, quién más femenino, quién asume determinados papeles y funciones en la pareja...). Ser víctima o maltratador/a en violencia intragénero está relacionado con la desigualdad de poder. Los maltratadores/as también internalizan la homofobia o LGTBIQfobia, lo que hace que alimenten odio inconsciente contra sí mismos/as y proyecten ese odio contra su pareja.</p>



<p>inkontzientea elikatzen dabe eta gorroto hori bikotekidearen aurka proiektatzen dabe.</p>	
<p>4. INDARKERIA KASUETAN ERANTZUNA ERESPIDEAK MATXISTEAREN JENDAURREKO EMOTEKO</p>	<p>4. CRITERIOS SOBRE LA RESPUESTA INSTITUCIONAL EN CASO DE VIOLENCIA MACHISTA</p>
<p>Jendaurreko erantzuna emoteko protokoloa "garrantzi berezikotzat" jotzen diran indarkeria matxistako kasu jakin batzuetan aktibatuko da.</p>	<p>El protocolo de respuesta pública se activará en determinados casos de violencia machista considerados "de especial relevancia".</p>
<p>Protokolo hau aktibatzea eskatuko daben "garrantzi bereziko" kasuak honako honeek izango dira: hilketea, sexu-abusua, sexu-erasoa eta erasoagaz batera jazoten diran inguruabar astungarriak, esaterako, bahiketak, taldean egindako erasoak, kordea galarazo daben elementuak dagozanean edo erasotzeko asmoz korde-galtzeaz baliatzen diranean, erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun-kidegokoak edo herritarren agente garrantzitsuak diranean, eta erasotzaile berak eraso errepikatzen dauenean - biktimizearen bikotekidea eta bikotekide ohia izan zein ez izan-, leku berean jazoten danean eta hemen jaso ez diren inguruabarretan, baldin etorkizunean erasoaren astungarritzat jo ahal badira.</p>	<p>Los casos de "especial relevancia" a partir de los cuales se activará el presente protocolo serán los siguiente: asesinato, abuso sexual, agresión sexual y circunstancias agravantes que acompañen a la agresión como el secuestro, agresión cometida de manera colectiva, cuando medien elementos que hayan provocado la inconsciencia o se hayan aprovechado de ésta para agredir, el agresor o agresores formen parte del funcionariado público, de cuerpos de seguridad o de agentes ciudadanos relevantes, así como cuando la agresión sea reiterada por el mismo agresor, sea o no pareja o expareja de la víctima, en el mismo lugar y en cuantas circunstancias no contempladas aquí y que puedan ser objeto de consideración como elementos agravantes de una agresión en el futuro.</p>
<p>Erantzun irmoa</p>	<p>Respuesta contundente</p>
<p>Indarkeria sexistearen aurrean zero tolerantziaren kultura eregiteko, ezinbestekoa da salaketea argia eta sendo egina izatea eta modu sistematiakoan desmuntatzea edozein indarkeria-ekintza ukatu, normaldu, minimizatu edo justifikatzen daben argudio eta adierazpenak. Indarkeriaren adierazpen guztiak dira arbuigarriak.</p>	<p>La construcción de una cultura de tolerancia cero hacia la violencia sexista pasa por la claridad y la determinación en la denuncia, y por el ejercicio sistemático de desmontar los argumentos y expresiones que niegan, normalizan, minimizan y/o justifican cualquier acto de violencia. Todas sus expresiones son reprobables.</p>
<p>Erasotzat jo leitekezanak jazoten diranean, emakumeen aurkako indarkeriazko kojaerarik toleratzen ez dala erakustera bideratu behar da, orokorrean, jendaurreko erantzuna. Irmo eta argi</p>	<p>En términos generales, la respuesta pública ante posibles agresiones debe orientarse a demostrar que las conductas violentas contra las mujeres no se toleran. De manera tajante e inequívoca, no hay</p>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

<p>adierazo behar da erasotzaileentzat ez dagoala inpunitaterik ez isiltasun legitimatzailearik, beti errespetatuko da euren errubakotasun-presuntzinoa, eta ez da zalantzan ipiniko biktimearen kontakizunaren sinesgarritasuna.</p>	<p>impunidad ni silencio legitimador para los agresores, se respetará siempre su presunción de inocencia y no se asumirán dudas sobre la credibilidad del relato de las mujeres.</p>
<p>Errespetuzko erantzuna</p>	<p>Respuesta respetuosa</p>
<p>Suertatu leitekezan egoeretan gehiago sakondurik, askotan emakumeek ez dabe gura izaten euren burua erakutsi, eta hori euren ganean ezarten dan estigma sozialaren sintomatzat ulertu behar da, bai eta euren burua babesteko neurritzat. Horrenbestez, erakundeek hori errespetatu eta bermatu egin beharko dabe. Eta horrela jokatzeari garrantzitsua da; izan be, jendaurreko erantzuna egokia eta proportzionala izateko, kasuak banaka aztertu behar dira, errespetu eta empatia errazoi begi-bistakoakaitik, eta, era berean, erantzun hori herritar guztientzat elementu hezitzailea izatea gura dalako be; beraz, erantzun horrek blindatuta egon behar dau berehala erantzuteko presinoen aurrean. Biktimeari emon beharreko arreta izan behar da berehalakoa, jagokezan erakundeek biktimea eta beraren ingurunea zaintzea.</p>	<p>Ahondando más en las diferentes situaciones, el hecho de que a menudo las mujeres opten por no darse a conocer debe entenderse, por un lado, como un síntoma del estigma social que recae sobre ellas y, por otro lado, como una medida de protección propia y, por lo tanto, las instituciones lo respetan y garantizan. Esta consideración es relevante, ya que implica que una respuesta pública, adecuada y proporcional se basa en un análisis individualizado de cada caso, por razones obvias de respeto y empatía, y también porque esta respuesta aspira a convertirse en un hecho educativo para el conjunto de la ciudadanía, por lo que debe blindarse ante las presiones de la inmediatez. Inmediata debe ser la atención a la superviviente; su cuidado y el de su entorno por parte de las instituciones que correspondan.</p>
<p>Inpunitatea geldierazotea</p>	<p>Frenar la impunidad</p>
<p>Indarkeria sexistarik izaten danean, erantzukizuna erasotzaileena da. Inoiz ez biktimena. Eta inpunitaterik izan ez daiten, garrantzitsua da gizarteak eta erakundeek argi eta garbi erakustea erasotzaileen ekintzek eragiten daben arbuio soziala. Horregaitik, erakundeak egingo dituan jendaurreko adierazpenak nondik nora joango diran erabagi behar danean, baloratu egingo da ea jendaurreko adierazpen horrek erasotzaileen inpunitatea murriztu edo galgatu ahal dauen indarkeria sexistearen izandako kasuetan, kontuan harturik bai erasotzaileen errubakotasun-presuntzinoa bai biktimei zor jaken begirunea.</p>	<p>La responsabilidad de los casos de violencia sexista corresponde a los agresores. Nunca a las supervivientes. Y para evitar su impunidad, es importante que la sociedad y las instituciones muestren con determinación el rechazo social que sus acciones provocan. Es por ello por lo que llegado el momento de decidir sobre el alcance de las manifestaciones públicas que va a impulsar la institución, se valorará si esa manifestación pública puede reducir o frenar la impunidad del o los agresores ante la violencia sexista; teniendo en cuenta, además, su presunción de inocencia y el respeto a las mujeres.</p>



Berbiktimizazioa saihestea	Evitar la revictimización
<p>Indarkeria sexistaren jatorria egiturazkoa danez, askotan ez da modurik egokienean jokatzeko indarkeria sexista izaten danean. Emakumezkoak zalantzan ipinten dira edo bizi izandako indarkeriaren erantzule egiten dira. Fenomeno horrek ekartzen dau askotan biktimak errudun sentitzea. Horregaitik, garrantzitsua da mezuetan gogorarazotea indarkeria darabilenek daukiela indarkeriaren erantzukizuna, ez emakumezkoek. Beraz, saihestu egin behar da emakumezkoak estigmatizatzen dituen mekanismoak martxan ipintea.</p>	<p>Dado el origen estructural de la violencia sexista, en muchas ocasiones, no se actúa de la manera más adecuada ante un caso de violencia sexista. Se cuestiona a las mujeres o se las responsabiliza de la violencia vivida. Este fenómeno hace que en muchas ocasiones las víctimas se sienten culpables. Por ello, es importante recordar en los mensajes que la responsabilidad de la violencia es de quienes la ejercen y no de las mujeres, evitando la puesta en marcha de mecanismos que las estigmaticen.</p>
Indarkeria matxistaren ondoriozko hilketen edo sexu-erasoen aurrean jarduteko prozedurak	Procedimientos de actuación ante muertes por violencia machista y agresión sexual
<p>Prozedura honeen xedea da, alde batetik, gaitzespena adierazotea eta biktimizearen familiari eta, halan jagokonean, adin txikiko seme-alaba biktimizei erakundearen babesa adieazotea eta, bestetik, erakundearen arreta, esku-hartzea eta koordinazioa hobetzea, azken baten emakumezko gehiago hiltzea saihestearren. Honako egoera honeetan jarriko dira martxan prozedurak:</p>	<p>Estos procedimientos se establecen con el fin de mostrar la condena y el apoyo institucional a la familia de la víctima y en su caso, a las hijas y a los hijos menores supervivientes, así como mejorar la atención, la intervención y la coordinación interinstitucional para así evitar que se produzcan nuevas muertes de mujeres. Se pondrán en marcha en las siguientes situaciones:</p>
<ul style="list-style-type: none">- Emakumezko bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen dauenean etxeko tratu txar egoera baten ondorioz.	<ul style="list-style-type: none">- Cuando una mujer es asesinada por su pareja o expareja como consecuencia de una situación de violencia machista.
<ul style="list-style-type: none">- Emakumezkoa sexu-eraso bidez hiltzen dabenean.	<ul style="list-style-type: none">- Cuando una mujer es asesinada mediando agresión sexual.
<p>Batzar Nagusietako Lehendakariak Euzko Jaurilaritzako Segurtasun Sailaren bitartez dakianean aurreko paragrafoan aitatutako ezaugarriak dituan eraso matxistaren bat izan dala Bizkaian, Taldeburuen Batzarrari deituko deutso jendaurreko erantzuna eragiteko protokoloari hasiera emoteko. Komunikatua (1. eranskina eta 2. eranskina) onartuko da eta hedabideen bitartez eta erakundearen sare sozialen eta webgunearen bitartez zabalduko da.</p>	<p>Cuando La Presidencia de las Juntas Generales haya tenido constancia, a través del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, de una agresión machista en Bizkaia de las características mencionadas en el párrafo anterior, activará a la Junta de Portavoces para iniciar el protocolo de respuesta pública. Se aprobará el comunicado (Anexo 1 y Anexo 2) y se difundirá a través de los medios de comunicación, a través de las redes sociales de la institución y a través de la página web institucional.</p>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ganera, biktimearen udalerrian egiten diran gaitzespen-alkarretaratzeetara edo eraso horregaitik deitutako gaitzespen-ekitaldietara joango dira Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkariak.

Además, representantes de las Juntas Generales de Bizkaia acudirán a las concentraciones de repulsa que se celebren en el municipio de la víctima o a los actos de repulsa convocados por dicha agresión.